# Bestelako Xedapenak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**5769**

AGINDUA, 2010eko urriaren 18koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen izendapen generikoari buruzkoa.

2000ko urriaren 11ko EHAAn, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2000ko irailaren 11ko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako ikastetxeen izendapen generikoa arautu baitzen; agindu hori 2000ko abenduaren 11ko Aginduak aldatu zuen.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua 2002ko abenduaren 31ko EHAAn argitaratu zen. Dekretu horren arabera, horrelako ikastetxeei Haur-eskola izen generikoa ematen zaie, titularra zein den gorabehera.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren IV. Tituluak ikastetxeak arautzen ditu. Ikastetxe publikoei dagokienez (111. artikulua), haur-hezkuntza eskaintzen dutenei Haur-eskola izendapena emango zaie; lehen hezkuntza eskaintzen dutenei, berriz, Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak deituko zaie; eta derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta lanbide-heziketa eskaintzen dutenei, Bigarren Hezkuntzako Institutu. Haur-hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen duten ikastetxe publikoei Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak deituko zaie.

Hezkuntza premia bereziak –ikastetxe arruntek aniztasuna tratatzeko neurrien esparruan tratatu ezin dituzten premiak– dituzten ikasleentzat ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeei Hezkuntza bereziko Ikastetxeak deitu zaie.

Arte plastikoetako eta diseinuko lanbide-ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe publikoei Arte Eskolak deituko zaie, eta musikako eta dantzako lanbide-ikasketak eta, hala badagokio, oinarrizko ikasketak eskaintzen dituztenei, Kontserbatorioak. Goi-mailako arte-ikasketak irakasten dituzten zentroei dagokienez, 58. artikuluak ezartzen du musika eta dantzako goi-mailako ikasketak kontserbatorioetan edo musika eta dantzako goi-mailako eskoletan egingo direla; arte dramatikoetakoak, berriz, arte dramatikoko goi-mailako eskoletan; kultura-ondasunak zaintzeko eta zaharberritzeko ikasketak kultura-ondasunak zaintzeko eta zaharberritzeko goi-mailako eskoletan egingo dira; arte plastikoetako goi-mailako ikasketak, dago-

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**5769**

ORDEN de 18 de octubre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, relativa a la denominación genérica de los centros docentes de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En el BOPV de 11 de octubre de 2000 se publicó la Orden de 11 de septiembre de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regulariza la denominación genérica de los centros docentes de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, modificada por la Orden de 11 de diciembre de 2000.

En el BOPV de 31 de diciembre de 2002 se publicó el Decreto 297/2002, de 17 de diciembre, por el que se regulan las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Dicho Decreto atribuye a estos centros, independientemente de su titularidad, el nombre genérico de Escuelas Infantiles.

La Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, regula en su Título IV los centros docentes. Respecto de los centros públicos (artículo 111), aquéllos que ofrecen educación infantil se denominarán escuelas infantiles; los que ofrecen educación primaria, colegios de educación primaria; los que ofrecen educación secundaria obligatoria, bachillerato y formación profesional, institutos de educación secundaria. Los centros públicos que ofrecen educación infantil y educación primaria se denominarán colegios de educación infantil y primaria.

Los centros que ofrecen enseñanzas dirigidas a alumnos con necesidades educativas especiales que no puedan ser atendidas en el marco de las medidas de atención a la diversidad de los centros ordinarios, se denominarán centros de educación especial.

Los centros públicos que ofrecen enseñanzas profesionales de artes plásticas y diseño se denominarán escuelas de arte; los que ofrecen enseñanzas profesionales y, en su caso, elementales, de música y danza, conservatorios. Respecto de los centros públicos que imparten enseñanzas artísticas superiores, el artículo 58 establece que los estudios superiores de música y de danza se cursarán en los conservatorios o escuelas superiores de música y danza, y los de arte dramático en las escuelas superiores de arte dramático; los de conservación y restauración de bienes culturales en las escuelas superiores de conservación y restauración de bienes culturales; los estudios superiores de artes plásticas en las escuelas superiores de la especialidad

kion espezialitateko goi-mailako eskoletan eskainiko dira, eta diseinuko goi-mailako ikasketak, diseinuko goi-mailako eskoletan.

Lanbide heziketako zentroei dagokienez, 39.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, Hezkuntzari buruzko Legean araututako lanbide-heziketako ikasketak, Legean bertan araututako ikastetxeetan nahiz 5/2002 Lege Organikoaren 11. artikuluan aipatzen diren ikastetxe bateratuetan eta erreferentzia nazionalekoetan egin ahal izango dira (ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa, Lanbide Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa).

Bestalde, ikastetxe pribatuek (114. artikulua) edozein izen hartu ahal izango dute, salbu eta ikastetxe publikoei dagozkienak edo haiekin nahasteko bidea eman dezaketenak.

Esandako guztiaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen izendapen generikoa, 2000ko irailaren 11ko Aginduaren eranskinean jasotakoa, zaharkituta geratu da, eta agindu honen bidez zuzendu nahi da arazo hori.

Honako xedapen hauek ikusi dira: 2000ko irailaren 11ko Agindua, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, eta arlo honetan aplikatzekoak diren indarreko gainerako xedapenak. Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.–*** Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen izendapen generikoa agindu honen eranskinean jasotakoa izango da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2000ko irailaren 11ko Agindua, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako ikastetxeen izendapen generikoa arautzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 18a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

correspondiente, y los estudios superiores de diseño en las escuelas superiores de diseño.

Respecto de los centros de formación profesional, el artículo 39 establece en su apartado 5 que los estudios de formación profesional regulados en dicha Ley podrán realizarse tanto en los centros educativos que en ella se regulan como en los centros integrados y de referencia nacional a los que se refiere el artículo 11 de la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional.

Por su parte, los centros privados (artículo 114) podrán adoptar cualquier denominación, excepto la que corresponda a centros públicos o pueda inducir a confusión con ellos.

Como consecuencia de todo lo anterior, la denominación genérica de los centros docentes de la Comunidad Autónoma de Euskadi contenida en el anexo de la Orden de 11 de septiembre de 2000 se encuentra desfasada, hecho que se pretende corregir con la presente Orden.

Vista la Orden de 11 de septiembre de 2000, el Decreto 297/2002, de 17 de diciembre, la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, y demás disposiciones vigentes aplicables en la materia,

DISPONGO:

***Artículo único.–*** La denominación genérica de los centros docentes de la Comunidad Autónoma de Euskadi es la que se contempla en el anexo a la presente Orden.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 11 de septiembre de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regulariza la denominación genérica de los centros docentes de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de octubre de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ERANSKINA / *ANEXO*

ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXE PUBLIKOEN IZEN GENERIKOA
*DENOMINACIÓN GENÉRICA DE LOS CENTROS PÚBLICOS QUE IMPARTAN ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN GENERAL*

| Gaztelaniazko izen generikoa<br>*Denominación Genérica Castellano* | Siglak<br>*Siglas* | Euskarazko izen generikoa<br>*Denominación Genérica Euskera* | Siglak<br>Siglas |
|---|---|---|---|
| Escuela de Educación Infantil | EEI | Haur Hezkuntzako Eskola | HE |
| Escuela Infantil Municipal | EIMU | Udal Haur Eskola | UHE |
| Escuela Infantil Consorcio | EIC | Partzuergoko Haur Eskola | PHE |
| Colegio de Educación Primaria | CEP | Lehen Hezkuntzako Ikastetxea | LHI |
| Colegio de Educación Infantil y Primaria | CEIP | Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea | HLHI |
| Colegio de Educación Especial | CEE | Hezkuntza Bereziko Ikastetxea | HBI |
| Centro de Educación de Personas Adultas | CEPA | Helduen Hezkuntzako Ikastetxea | HHI |
| Instituto de Educación Secundaria | IES | Bigarren Hezkuntzako Institutua | BHI |
| Instituto Específico de Formación Profesional Superior | IEFPS | Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutua | GLHBI |
| Instituto Publico Integrado | IPI | Institutu Publiko Integratua | IPI |
| Centro de Educación Básica a Distancia | CEBAD | Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxea | UOHI |
| Instituto de Bachillerato a Distancia | IBD | Urrutiko Batxilergoko Institutua | UBI |
| Centro Público de Cualificación Profesional Inicial | CPCPI | Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxe Publikoa | HLPIP |

ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXE PRIBATUEN IZEN GENERIKOA
*DENOMINACIÓN GENÉRICA DE LOS CENTROS PRIVADOS QUE IMPARTAN ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN GENERAL*

| Gaztelaniazko izen generikoa<br>*Denominación Genérica Castellano* | Siglak<br>*Siglas* | Euskarazko izen generikoa<br>*Denominación Genérica Euskera* | Siglak<br>*Siglas* |
|---|---|---|---|
| Escuela Infantil Privada | EIPR | Haur Eskola Pribatua | HEPR |
| Centro Privado de Educación Infantil | CPEI | Haur Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua | HIP |
| Centro Privado de Educación Primaria | CPEP | Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua | LHIP |
| Centro Privado de Educación Secundaria | CPES | Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua | BHIP |
| Centro Privado de Educación Infantil y Primaria | CPEIP | Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua | HLHIP |
| Centro Privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria | CPEIPS | Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua | HLBHIP |
| Centro Privado de Educación Primaria y Secundaria | CPEPS | Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua | LBHIP |
| Centro Privado de Educación Especial | CPEE | Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Pribatua | HBIP |
| Centro Privado de Educación de Personas Adultas | CPEPA | Helduen Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua | HHIP |
| Centro Privado de Educación a Distancia | CPEDI | Urrutiko Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua | UHIP |
| Centro Autorizado de Cualificación Profesional Inicial | CACPI | Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxe Baimendua | HLPIB |

ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXE PUBLIKOEN IZEN GENERIKOA
*DENOMINACIÓN GENÉRICA DE LOS CENTROS PÚBLICOS QUE IMPARTAN ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN ESPECIAL*

| Gaztelaniazko izen generikoa<br>*Denominación Genérica Castellano* | Siglak<br>*Siglas* | Euskarazko izen generikoa<br>*Denominación Genérica Euskera* | Siglak<br>*Siglas* |
|---|---|---|---|
| Escuela Oficial de Idiomas | EOI | Hizkuntza Eskola Ofiziala | HEO |
| Conservatorio Superior de Música | CSM | Goi Mailako Musika Kontserbatorioa | GMK |
| Conservatorio Profesional de Música | CPM | Musika Kontserbatorio Profesionala | MKP |
| Conservatorio Elemental de Música | CEM | Oinarrizko Mailako Musika Kontserbatorioa | OMK |
| Conservatorio Superior de Danza | CSD | Goi Mailako Dantza Kontserbatorioa | GDK |
| Conservatorio Profesional de Danza | CPD | Dantza Kontserbatorio Profesionala | DKP |
| Conservatorio Elemental de Danza | CED | Oinarrizko Mailako Dantza Kontserbatorioa | ODK |
| Escuela de Arte | EA | Arte Eskola | AE |
| Escuela Superior de Diseño | ESD | Goi Mailako Diseinu Eskola | GDE |
| Escuela de Arte y Superior de Diseño | EASD | Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola | AGDE |
| Escuela Superior de Arte Dramático | ESAD | Goi Mailako Antzezpen Eskola | GAE |
| Escuela Superior de Conservación y Restauración de Bienes Culturales | ESCRBC | Kultur Ondasuna Zaintzeko eta Zaharberritzeko Goi Eskola | KOZGE |
| Centro Público de Enseñanzas Deportivas | CPED | Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa | KIIP |
| Escuela de Música Pública | EMPU | Musika Eskola Publikoa | MEPU |

ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXE PRIBATUEN IZEN GENERIKOA
*DENOMINACIÓN GENÉRICA DE LOS CENTROS PRIVADOS QUE IMPARTAN ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN ESPECIAL*

| Gaztelaniazko izen generikoa<br>*Denominación Genérica Castellano* | Siglak<br>*Siglas* | Euskarazko izen generikoa<br>*Denominación Genérica Euskera* | Siglak<br>*Siglas* |
|---|---|---|---|
| Centro Autorizado Superior de Música | CASM | Goi Mailako Musika Ikastetxe Baimendua | GMIB |
| Centro Autorizado Profesional de Música | CAPM | Musika Ikastetxe Baimendu Profesionala | MIBP |
| Centro Autorizado Elemental de Música | CAEM | Oinarrizko Mailako Musika Ikastetxe Baimendua | OMIB |
| Centro Autorizado Superior de Danza | CASD | Goi Mailako Dantza Ikastetxe Baimendua | GDIB |
| Centro Autorizado Profesional de Danza | CAPD | Dantza Ikastetxe Baimendu Profesionala | DIBP |
| Centro Autorizado Elemental de Danza | CAEDA | Oinarrizko Dantza Ikastetxe Baimendua | ODIB |
| Centro Superior de Arte Dramático | CSAD | Goi Mailako Antzezpen Ikastetxea | GAI |
| Centro Superior de Conservación y Restauración de Bienes Culturales | CSCRBC | Kultur Ondasuna Zaintzeko eta Zaharberritzeko Goi Mailako Ikastetxea | KOZGI |
| Centro Superior de Diseño | CSD | Goi Mailako Diseinu Ikastetxea | GMDI |
| Centro Autorizado de Artes Plásticas y Diseño | CAAPD | Arte Plastiko eta Diseinuko Ikastetxe Baimendua | APDIB |
| Centro Autorizado de Enseñanzas Deportivas | CAED | Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Baimendua | KIIB |
| Escuela de Música Privada | EMPR | Musika Eskola Pribatua | MEPR |